



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “Kooperazio eta Garapenerako Fundoa (FOCAD)-2002” TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, “Kooperazio eta Garapenera Laguntza emateko Fundoa-FOCAD”i buruzko txostena mamitu du, 2002ko urtealdiari dagokiona. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

FOCAD Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuzko programa da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren Garapenerako Kooperazio Zuzendaritzak kudeatutakoa. Programak kudeatzen duen jarduera nagusia Garapenerako Kooperazioaren laguntzen deialdia, hautaketa eta jarraipena dira. Programaren aurrekontuak 2002an 30 milioi euro egin zituen, 28 milioi euroko gastuak gauzatu eta ondoko urtealdietarako 5 milioi euro konprometitu zirelarik.

HKEEren lana honako hauek aztertzea izan da: emandako dirulaguntzak, indarreko arautegiari egokitzen zaizkion, aurrekontuan duten isla eta helburuen betetze maila zehazteko emandako laguntzen jarraipen eta kontrola egitea.

HKEEren txostenak dio, aurrekontuaren likidazioan abian jarritako ekintzen exekuzioa ez kuantifikatzeak –kudeaketazko adierazleen bidez- ezinezko egiten duela sortutako gastuak programaren helburuekiko duen egokitasunari buruzko ondoriorik ematea. Nolanahi ere, erakunde fiskalizatzaileak informazio osagarria eskuratu du, non programak xede dituen helburuetariko batzuk eta jarduera islatzen diren; hori guztia txostenari txertatu zaio.

Azaldutako informazio honez gain, txostenak laguntzak emateko zenbait espedientetan azaleratu diren hutsak azpimarratu ditu.